

“Gazteek lan munduan erreztasun handiago bat izatea garrantzitsua izango litzateke”

Zumaia 2050ean nola izango den gaiari buruz hitz egingo dugu

Luis Alberdi

Zumaiako Herritarra

1.Zure ustez itsasoa gure ekonomia iturri izaten jarraituko al da?

Neurri batean izango da baina ez gaur bezain beste , espezie gero eta gutxiago egon daitezke eta horrek ekonomia iturria txikitu araziko du

2.Klima aldaketarik egongo al da zure ustez?

Orain dagoeneko klima aldakeraren aurrean gaude , neurri bereziak hartu beharko dira bestela etengabeko aldaketa egongo da, garai horretarako agian ingurugiroari egindako kaltea itzulezina izan daiteke

3.Zumaiaren azalera zabalduko dela uste al duzu?

Bai, orain dela urte batzuk ez genuen uste gaur egun dena izango zenik, etorkizunean ere izan ditzake aldaketak, bai azalera handituaz artoa edota bedua alderuntz ere

4.Zientifikoek diote urtero itsasoak zumaia erasotzeko aukera gehiago daudela.Zer diozu honi begira?

Klima aldakeraren ondorioz gerta liteke itsasoak bere lekua hartzea , horren ondorioz , zentrimetroz zentimetro gorakada izaten badu , neurriak hartu beharko dira gaur egun itsasertzean dagoen lurra mantendu ahal izateko. Hori ekiditeko derrigorrezko neurriak gaurdanik hartu beharko dira, berandu xamar bagabiltza

5.Gaur egungo garraioa mantendu ala aldatu egingo dela uste al duzu?

Aldatu egin beharko litzateke, gero eta etorkizun jasangarriago bat izan beharko genuke. Jendearen garraio publikoko erabilera handiagotu, bizikletaren erabilera piztu, herri barnean autoen sarrera murriztu. Kotxeak ere elektrifikatu egingo dira, eta neurri gehiago etorriko dira etorkizuneko CO2 gutxiago sortzearen alde

6.Zumaiko biztanleria handitu ala txikitu egingo dela uste duzu?

Nahiz eta gazteentzat familia izatea gero eta zailagoa izan (soldata baxuak eta prezio gero eta altuagoak direla medio) gero eta jende gehiago etortzen ari da kanpotik, bai etorkin gehiago datorrelako eta baita barnealdeko gero eta jende gehiago datorrelako

kostaldeko herrietara. Telelana ere indartuko den gai bat izango da eta horrek suposatuko du lan asko edozein lekutatik egin ahal izango dela, beraz jendeak nahiago izango du kostaldean bizi eta bertatik lan egin

7. Gizartearen zer aurrerapen gustatuko litzazkizuke egotea?

Gazteek lan munduan erreztasun handiago bat izatea garrantzitsua izango litzateke, horrek ongizatearen alde jokatu bait du. Gaur egun dagoen mundu birtualaren maila ere jeistea gustatuko litzaidake eta orain dela urte batzu bezela bizitza errealago eta inguruko bizitza bateaz gozatzeko aukera handiago bat nahiko nuke. Hala ere guztiz kontrakoa izango dela iruditzen zait. Teknologia berriak gero eta aldaketa gehiago eta bizitza birtualago batizatera bultzatuko du

8. Zumaiko arkitekturan aldaketarik egongo al da?

Nik uste garraioan aldaketak egongo direla, gero eta kotxe gutxiago ibiliko dira erdikaldean, kanpoko jendea ezin izango da zumaia barnekaldera kotxean sartu. Zabalkunde bat ikusten dut batez ere Arroa eta oikia aldera eta itsasoaren eboluzioa geldiarazteko neurriak hartu beharko dira